

FAMILIENTZAKO AHOLKU BALIAGARRIAK

10. aholkua. Nola jokatu beharko genuke mezu elektronikoekin?

1. Ez dituzu ireki behar bidaltzaile ezezagunen mezu elektronikoak, eta are gutxiago, beste hizkuntza batzuetan idatzi badaude. Sarritan, spam mezuak (zabor-mezuak) izaten dira. Horietan, artxibo, dokumentu edo esteka jakin batzuk egon daitezke, eta zure aparatua honda dezakete birusen bidez. Ez zenuke inoiz klik egin behar mezu elektronikoen barruan dauden esteketan; hobe da esploratzaile-barran webgune horren izena tekleatuz sartzea.
2. Posta elektronikoaren bidez formularioak iristen direnean, ez genituzke bete beharko, bereziki datu pertsonalak eskatzen dituzten mezuetan. Beste alde batetik, guretzat interesgarriak diren formularioak betetzean, jakin beharko genuke izartxoak dituzten eremuak nahitaez bete beharrekoak direla; gainerakoak, berriz, aukerakoak.
3. Kontuz banku-erakundearen mezuetan bankuko kontu edo ordainketaren bat egiaztatzeko eskatzen dizutenean; faltsuak dira beti, eta phishing¹-en biktimak izan gaitzake. Banku-erakundeek ez digute inoiz mezu elektronikoen bidez eskatzen informazio pertsonala. Mota horietako mezuak jasotzen baditugu, gure banku-erakundeari jakinarazi beharko genioke.
4. Baliagarria da posta elektronikoaren bi kontu izatea: bat, gai formaletarako, eta, bestea, gai informaletarako. Hala, kontu bakoitzean partekatzen duzun informazioa hauta dezakezu, eta helbide bat edo beste emango duzu hartzailea nor den kontuan hartuta.
5. Normalean erabiltzen duzun posta-kontuan, ez jarri zure izen-abizenak, adina edo jaiotze-data. Batzuetan, interesgarriagoa da ezizenak, izen asmatuak edo neutroak erabiltzea.
6. Posta elektronikoaren pasahitza oso garrantzitsua da. Ez partekatu inorekin, eta konbinatu letrak eta zenbakiak; ahal bada, jarri letra larriren bat. Segurtasunagatik, ez erabili beti pasahitz bera leku guztietarako.
7. Datu pertsonalen trataera pertsona guztien erantzukizuna da. Ez ditugu jarraitu eta birbidali behar posta elektronikoaren bidez igortzen diren kateak. Hori bai, mezua hainbat hartzailei igorri nahi badiezu, gomendatzen da CCO eremua (kopia ezkutua) erabiltzea, han sartzeko helbide guztiak, hartzaileek helbide horiek guztiak ez ikusteko moduan.
8. Mehatxuzko, jazarpeneko edo biraozko mezurik jasotzen badugu, garrantzitsua da mezu horiek gordetzea, aurrerago egon daitekeen auzian erabili ahal izateko.
9. Garrantzitsua da posta elektronikoaren bidez ez partekatzea jende ezezagunarekin datu eta irudi pertsonalik.
10. Segurtasun-neurri gisa, irudien bistaratzea blokea dezakegu jasotzen dituzun mezuen edukian. Hala, posible da irudiak deskargatu edo ikustaraztea, baldin eta ziur badakigu mezuak konfiantzazkoak direla.

¹ Phishinga itxura batean fidagarriak diren iturrien bidez datu pertsonalak lapurtzean datza. Egiarki webgune faltsutuak dira, eta erabiltzaileak han sartzen ditu bere datuak.